



HORNIDURA-SAREA MUNGIAKO EMERANDO AUZORA ZABALTZEKO OBRA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. BIGARREN FASEA. ESPEDIENTE-ZK.: 3320

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Aizpea Urrutia Elorriaga
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea:. Proiektu honen xedea da adierazitako auzoan hornidura-sarea handitzea. Horretarako, 90DI HDPE PN16 hodi berria instalatuko da, gutxi gorabehera kilometro bateko luzeran, Udalak aldeaz aurretik instalatutako saretik. 2.- Bete beharreko premiak: Gaur egun, Mungia udalerriko Emerando auzoko bizilagunek ez dute sare orokorreko edateko urik, eta, beraz, iturburu pribatuez hornitzen dira, horrek dakartzan kalitate- eta kantitate-arazoekin. Beraz, proiektu honen xedea da adierazitako auzoan hornidura-sarea zabaltzea, hodi berria jarrita. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratua lotetan banatuta gauzatzeak zaildu egingo luke kontratua behar bezala gauzatzea ikuspegi teknikitik. Gainera, arriskuan jarriko luke egin beharreko lan guztiak modu koordinatuan egitea. Hala, ondorioz, eragin handiagoa jasango lukete eremuko abonatuak hornidura-eten kopurua dela-eta. Era berean, lotetan banatzeak oztopatu egingo luke ingurumen-kontrolak behar bezala kudeatzea, hondakinak kudeatzea eta obretako segurtasun- eta osasun-arauak aplikatzea	
4.- CPV: CPV kodea:45232150-8 45240000-1 Deskribapena: UraK banatzeko hodiekin lotutako lanak Proiektu hidraulikoetarako eraikuntza-lanak	
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ	



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.- Izaera juridikoa:

Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

HIRUREHUN ETA HAMAZAZPI MILA SEIEHUN
ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA
HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO
(317.687,78 €)

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: HIRUREHUN ETA HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (317.687,78 €)

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren
aurrekontu-aplikazioa:

2027. urtea---- 452,10 - 601,13 partida -- 317.687,78 €

5.- Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: BBUPko organo-eskudunak onetsitako hileroko ziurtagiriaren bidez

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa SEI (06) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Berme-epea: URTE (1) BAT GUTXIENEZ

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: Mungia

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak: ☐ BAI ☒ EZ.



E.- BERMEAK

- ☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez. (317.687,78 €)

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Gaitasun teknikoa honen medioz egingo da: azken bost urteetan egindako obren zerrenda, izan kontratuari dagokion sailkapen-talde edo -azpitalde bereko obrak, edo kontraturako garrantzitsuena den taldekoak edo azpitaldekoak, baldin eta kontratuak azpitalde baten baino gehiagoren lanak jasotzen baditu; betiere, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiagokoa bada (222.381,45 €).

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Kaudimen tekniko eta profesionalari dagokienez eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai, Hautazkoa ☐ Ez

Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria: E taldea, 1. azpitaldea, 2. kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.-1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.-2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentuak.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.



Aurkeztutako proposamena pleguan zehaztutako balorazio teknikoko irizpideen arabera ebaluatu ahal izateko, dokumentazio teknikoak memoria izango du, ondoren zehazten den ordenan eta edukian egituratuko dena:

a) Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia (20 puntu)

- Proiektuaren analisia: Lizitatzailleak proiektuaren azterlana egingo du eta proiektuaren dokumentazioari buruz ondorioen zerrenda sortu beharko du, ezagutza-maila agerian uzteko. Halaber, garapenean eragin dezaketen kanpo-baldintzatzaileei buruzko azterlanak eta lizitatzaillearen ustez kontratuarentzako garrantzitsuak diren bestelako inguruabarrei buruzkoak baloratu egingo dira. Besteak beste, hirugarrenei eragindako kaltea minimizatzeko azterketa baloratuko da, bai eta foru-errepidearekiko eta errekarekiko hurbiltasuna ere.
- Obrako lanak aztertzea: Obraren jarduketa nagusi bakoitzean aztertu egingo dira beharrezko eraikuntza-prozesuak eta garatzean libratu beharreko zailtasunak identifikatuko dira: kokapena, ezarpena, instalazio osagarriak, pilaketak, obrarako sarbideak, etab., eta proposatutako metodoak eta bitartekoak zehaztuko dira.

b) Obraren eskura dauden bitartekoak – Lanak programatzea eta obraren eskura dauden bitartekoak (25 puntu)

- Obran erabil daitezkeen bitartekoak: Organigrama eta obrarako proposatzen den antolamenduaren deskribapen funtzionala entregatuko dira eta lantaldea definituko da, prestasuna zehaztuta eta langileen kualifikazioa eta esperientzia azalduta. ABEEen kasuan, argi eta garbi definituko da enpresa parte-hartzaileen funtzioen banaketa. Proposatutako taldeen zerrenda xehatuko da; kopurua eta eskulanaren eta makinaren dimentsionamendua zehaztuko dira, baita ere jabetza eta obrarekiko konpromisoak, ongi arrazoituta. Lizitatzailleak uste badu beharrezkoa dela lanen zati bat hirugarrenekin hitzartzea, horien izenak, erreferentziak, aurrekontuarekiko ehunekoak eta konpromiso-gutunak adieraziko dira eta, edonola ere, enpresa-profila edo sailkapena. Obran erabiliko diren materialen zerrenda jasotzen duen laburpen-taula aurkeztuko da, eta bereziki jasoko dira obrarako kritikoak direnak.

- Hodiak.
- Balbulak

Eskainitako materiala loteslea izango da eta horixe izango da kontratistak hornituko duena adjudikazioduna suertatzen baldin bada.

- Obraren plangintza orokorra: Obrak garatzeko plangintza orokorra koherentea izatea baloratuko da eta kontuan hartu beharko dira obraren kokapena eta obrak egiteko proposatutako bitartekoak. Behar bezala justifikatutako lanen programazioa gehituko da obrarako eskuragarri jarritako ekipoen eta bitartekoen arabera, eta proposatutako errendimenduekin koherentea izan beharko da. Bereziki hauek baloratuko dira:
 - Jarduerak definitzeko xehetasun-maila eta jardueren sekuentziaren koherentzia obra-lanak egitean.
 - Ekipoei esleitutako errendimenduen definizioa eta definitutako jardueren estimatutako benetako iraupenaren justifikazioa.
 - Obra-planaren definizioa. Gantt diagramaren bitartez adierazi beharko da eta bide kritikoaren azterlana eta lasaierak sortzea. EZ DA PUNTURIK EMANGO LANEN EPEAK MURRIZTEN BADIRA

c) Ingurumen-irizpideak (3 puntu)

Honela baloratuko dira:

- 3 puntu: Gehienez ere hiru puntu obra-hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatuko direla bermatzen duten proposamenei. Horretarako, Hondakinen Kudeaketa Planaren aurrerapen gisa taula sortu beharko da eta bertan azalduko dira obran sortuko direla aurreikusten diren hondakinak, kantitateak eta aurreikusitako tratamendua (balorizazioa edo deuseztatzea).

d) Gizarte-irizpideak (2 puntu)

Kontratuko plantillaren berdintasunarekin lotuta ezarritako neurriak. Bi puntura arte:

- Kontratua betetzen duen plantillari emandako prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak berdintasunari buruz.

Dokumentazio teknikoaren edukia gehienez 30 DIN A4 orrialdetara mugatu beharko da, eta karaktereen gehieneko tamaina ez da Microsoft Worden Arial 11 kalibrea baino txikiagoa izango. Atal bakoitzerako orrialde-banaketa lizitatzailleak aukeratu du, eta atalak modu korrelatiboan zenbakitu beharko dira. Salbuespen-kasuetan Din A1 eta Din A3 orriak erabili ahalko dira horrela aurkeztu beharreko dokumentaziorako. Orrialdak zenbatzen direnean ez dira kontuan hartuko azalak, aurkibideak eta obrako lantaldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duten agiriak. Hala, azken informazio hori eranskin bereizi batean atxiki beharko da. Ingurumen-irizpideak baloratzeko zuzen eguneratutako ziurtagiriak emango dira eta irismena jasota egon beharko da. 30 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 30 orrialdetik baino ez dira kontuan izango.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda

Proiektua osatzen duten unitate guztien **betearazpen materialeko prezio unitarioen zerrenda**, hizkiekin eta zenbakiekin idatzita. Prezio horiek eskuratzeko unitatearen kostu zuzenari % 7 gehituko zaio zeharkako kostuen kontzeptuan.

Lehiakideak konpromiso bat hartuko du. Horren arabera, adjudikazioduna bada, 2. prezioen taula beteko du bere eskaintzako prezio unitarioen zerrendan oinarrituta. Egitura egokia izango da agiri horren xedeak betetzeko eta azkenean obra-zuzendaritzari entregatuko zaio zuinketa egiaztatzeak akta sinatzen denetik aurrera kontatzen hasita lehen hilabetea igaro baino lehen.

Aurkeztutako prezio unitarioak kalkulatzeko erabili diren eskulanaren, makinen eta materialen oinarritzko unitate-prezioen zerrenda.

b) Kontratuaren aurrekontua.

- Betearazpen materialaren aurrekontua, lehiakideak lizitazio-proiektuaren neurketetarako eskaintako unitate-prezioak aplikatuz. Aurrekontu hori PRESTO programan bete beharko da, eta euskarri magnetikoko beste bertsioa ere entregatuko da. BC3 formatuan aurkeztea onartuko da aipatutako programak izan ezean.
- Obraren aurrekontua. Kalkulatzeko, aurrekontu materialari % 19 gehituko zaio gastu orokorren eta industria-irabaziaren kontzeptuan.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula partikularren agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorcioaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidentetza/Ordezkoa:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Kideak (titularrak/ordezkaririk):

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria (titularra/ordezkarria):
Gerardo Latorre Pedret jauna.

Adituen batzordea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoearekiko (B_i) proportzioan baloratuko dira formula matematikoekin. Balio hauek esleituko dira:

B_{max}	50 puntu
$(B_{max} + B_M) / 2$	48 puntu
B_M	47 puntu
$0,8 \times B_M$	46 puntu
$0,6 \times B_M$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu horien balioak aurretik adierazi den K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

Non:

- B_i : Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- B_{max} : Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- B_M : Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, B_i bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < B_i \leq 0,6 \times B_M$

$$P_i = \frac{B_i}{0,6 \times B_M} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times B_M < B_i \leq 0,8 \times B_M$

$$(B_i - 0,6 \times B_M)$$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 44 + \frac{\quad}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Formula horien bitartez eskuratutako P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurreko K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

- a) Memoria teknikoa eta lanak egitekometodologia----- 20 puntu
- b) Obraren eskura dauden bitartekoak – Lanak programatzea eta obraren eskura dauden-----
-----25 puntu
- c) Ingurumen-irizpideak ----- 3 puntu
- d) Gizarte-irizpideak-----2 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarateratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoa izatea.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille izanik, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, alde batera utziko da batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena, batez bestekoa kontuan hartuta 10 ehuneko-puntu baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, txikiena hartuko da kontuan, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enuntziazioa: Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitakoak

Zehapenen zenbatekoa:

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailleak laneko arriskuengatik erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez



Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☐ BAI
☒ EZ

KONTRATUAREN IRAUNALDIAN BETETZEKO BETEKIZUNAK

Obra-zuzendaritza

Lanen kontrola eta ikuskaritza Partzuergoko zerbitzu eskudunek egingo dute obra-zuzendaritzaren bidez. Hala, kontratatutako obra zuzen egiteko ikuskaritzak, egiaztapenak eta zaintza-lanak gauzatuko dituzte, administrazio baldintza berezien pleguaren 4. eta 24. klausuletan xedatutakoa betez.

Obrako seinaleak eta kartelak

Kontratistak nahitaez osatu beharko ditu proiektuaren lan-segurtasunaren eta -osasunaren azterlanean adierazitako elementuak, zehazki, obretarako sarbidea, lanak egiten diren espazioko zirkulazioa, puntu arriskutsu posibleen kokapena eta abar adierazteko, bai obra-gunean bai eta inguruetan eta mugetan ere. Gainera, administrazio baldintza berezien pleguaren 23. klausularen aginduak bete beharko dira.

Baimenak eta lizentziak

Adjudikaziodunak nahitaez kudeatu beharko ditu udal-baimen guztiak, salbu eta aldamioak, ibiak eta hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko eta abarretarako obretarako udal-lizentziak izatea. Hala, bere kargura izango dira oso-osorik kudeaketako gastuak eta tasak. Aurreko gastutik salbuetsita egongo da bakarrik udalak obren udal-lizentziaren kontzeptuan fakturatutako zenbatekoa, hala badagokio.

Era berean, bere kargura izango dira beste erakunde batzuetan (aldundian, etab.) baimenak izapidetzeko gastuak (abalak, etab.), baldin eta haren eskumeneko eremuetan gurutzatzeak eta/edo jarduketak egiten badira.

Baloratutako zerrendak

Kontratistak proposatutako hileko zerrenda baloratuak bc3 ziurtapen-formatuan aurkeztu beharko dira.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak ordezkaria atxiki beharko dio obra honi, kontratuaren harremanetan jarduteko edo enpresa ordezkatzeko gaitasun nahikoa duena. Ordezkari honek eta adjudikaziodunaren aginduetara dauden langileek ez dute harreman juridikorik izango, ez lan-harremanik, ez bestelakorik, Ur Partzuergoarekin, ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua amaitzean.